

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Orain arte emandako Moderna Zigiluak dituzten 113 proiektuek 1.600 lanpostu baino gehiago sortuko dituzte

*Moderna Fundazioaren Patronatua Nafarroako Unibertsitate  
Publikoan bildu da*

Martes, 29 de mayo de 2012

Orain arte Moderna Zigiluak lortu dituzten 113 proiektuek 1.600 lanpostu baino gehiago sortuko dituzte Nafarroako ekonomiaren garapenerako funtsezkoak diren sektoreetan. Hala azaldu da gaur Moderna Fundazioaren Patronatuko bilkuran; bilkura hori Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin da Fundazioko lehendakaria eta Nafarroako Gobernuko Lehendakari Yolanda Barcina buru direla.




Barcina Lehendakaria Moderna Fundazioaren Patronatuko bilkuraren buru.

Patronatuak [Moderna Zigilua lortzeko Moderna Fundazioari aurkeztutako enpresa-proiektuak](#) ezagutu eta baloratu ditu, finantzaketa-tresnetarako sarbidea ematen diena. Proiektu horiek Plana definitzen duten hiru arlo estrategikotan sartzen dira: Ekonomia Berdea, Osasunaren Ekonomia eta Lanaren Ekonomia.

Zigilu-kopuru handiena (73) Ekonomia Berdea arloaren barnean dauden proiektuei eman zaizkie. Haren atzetik datoz, Talentuaren Ekonomia, 26rekin eta Osasunaren Ekonomia, 14rekin. Lehenengok 833 lanpostu sortuko dituztela kalkulatu da, 544 Talentuaren Ekonomiakoek eta 299 Osasunaren Ekonomiakoek.

40.000 euro eta 42 milioi euro artean dagoen 113 proiekturen inbertsioa, guztira, 173 milioi eurotik gorakoa da; kopuru horretatik 59,6 milioi Europako Inbertsio Bankuari eskatzen zaizkio. Gainera, aurkeztutako bederatzi proiekturi 392.146 euroko abalak eman zaizkio.



Moderna Fundazioaren Patronatuko bilkura.

**Talentua erakarri eta  
gordetzeko proiektu europarra**

Gaurko Patronatuko bilkuran Moderna Fundazioa buru den [TASS \(Talent Attraction Support Services\) proiektu europarra](#) ere aurkeztu da. Proiektuaren helburua eskualde parte-hartzaileetan langile kualifikatuak erakarri eta gordetzeko tresnak nahiz zerbitzuak garatzea da, beraien lehiakortasuna hobetzeko trukearen bidez eta jardunbide egokiak transferituz talentua erakartzeko laguntza-zerbitzuen arloan.

Proiektuak zazpi erakunde parte-hartzaile ditu: Moderna Fundazioaz gain, Twente-ko Unibertsitatea (Holanda), Dusseldorf-eko (Alemania) ekonomia garatzeko bulegoa, Nijmege-ko Munizipalitatea (Holanda), Arnhem-go Munizipalitatea (Holanda), Hengelo-ko Munizipalitatea (Holanda), Karlstad-eko Udala (Suedia). Proiektuaren aurrekontua 90.000 €-koa da eta Europar Batasunak % 75 kofinantzatzen du.

Bestalde, Moderna Fundazioa kooperatibako bi plan sektorial sustatzen ari da: eraikuntza iraunkorrari buruzkoa bata, Eraikuntza Iraunkorraren Azoka CTK2012 proiektua bezalako proiektuekin, eta, nekazaritza elikagaien industrien esparruaren barnean, Txerri Sektoreko Plana, eta azken honen xedea bere lehiakortasuna handitu eta Europako araudiagatik aurre egin behar dieten inbertsioei aurre egitea da.

Moderna Fundazioaren Patronatuak ere [www.modernanavarra.com](http://www.modernanavarra.com) webgune berria ezagutu du; webgune horren helburua Fundaziora heltzen diren ideiak bideratzea da, eta Planaren nahiz garatutako proiektuen aurrerapen eta jardueren berri emango du.

## **Fundazioaren Patronatua**

[Moderna Fundazioaren Patronatua](#) erakundearen Gobernuko organo goren da, eta arlo publiko-instituzionalak eta arlo profesional-enpresarialak parte-hartze bera dute.

Fundazioaren lehendakaria Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulo da eta lehendakariordea, berriz, María José Ballarín Domeque.

Patronatuko gainerako kideak dira: bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla; lehen lehendakariorde eta Lehendakariitzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilari Roberto Jiménez Alli; Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boado; Nafarroako Alderdi Sozialistako María Victoria Arraiza Zorzano; Unión del Pueblo Navarroko Carlos García Adanero ; Unión del Pueblo Navarroko Maribel García Malo; Unión del Pueblo Navarroko Carmen González García; Nafarroako Alderdi Sozialistako Juan José Lizarbe Baztán; Unión del Pueblo Navarroko Lourdes Goicoechea Zubelzu; Nafarroako Alderdi Sozialistako Anai Astiz Medrano; Nafarroako Enpresarioen Konfederazioko José Antonio Sarriá Terrón; Nafarroako Unión General de Trabajadores-eko Juan Goyén Delgado; Nafarroako Comisiones Obreras-ko José María Molinero Frutos; Nafarroako Unibertsitate Publikoko Julio Lafuente López; Nafarroako Unibertsitateko José Ángel Gómez Montoro; Helmut Döllerer; Iñigo Eugui Martínez de Azagra; Carlos Fernández Valdivielso; Luis María Gallo Rueda; Ana Garrués Iñiguez; Juan Manuel Gorostiaga Ayestarán; Gorka Jiménez Sánchez; Francisco Javier Larrea Pascal; David Luquin Urtasun; Pablo Ortiz Betés; José Andrés Palacios Ferrer; Jesús Sarasa Murugarren; Juan Miguel Sucunza Nicasio eta Ana Ursua Lasheras.